

Lehenengo eta behin, gure hornitzaile garrantzitsuena argi dago dronaren piezak eta filtroak sortzen duen enpresa bat dela. Baita ere garrantzitsua da Adimen Artifizialarekin lan egiten duten enpresekin akordioak egitea. Enpresa hauekin izango ditugun akordioak horrelakoak izango dira: diruaren truke piezak erosiko dizkiegu.

Beste alde batetik, administrazio publikoekin akordioak egingo ditugu dronaren erabilpena arautzeko. Azken finean dronen inguruko legeak dioenez, hauek erabiltzeko baimen berezi bat behar da eta erabilera mugatua dago. Administrazio publikoak gure bezeroak izango dira baina autoritatea dutenez, baimen berezi bat eman behar digute erabilpena legezkoa izateko. Hori izango da gure akordioaren oinarria.

Garraio enpresa batekin ere lan egingo dugu bildutako plastikoak eta ekoiztutako dronak sakabanatzeko. Garraio enpresa hauek, gure dronak hainbat denda desberdinetara helaraziko dituzte eta aldi berean online eskaria egiteko aukera emango dute. Enpresa hauek azpikontratatuko ditugu.

Akordio hauen bidez, drona ez da salduko dugun ondasun bat bakarrik baizik eta, beste motatako hainbat zerbitzu eta erraztasun eskainiko ditugu hala nola, eskariak online egiteko aukera.